

APARKALEKUAREN ERABILERA-ARAUAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. ARTIKULUA AZALPEN OROKORRAK

1. Arau hauek derrigor bete behar dituzte bezeroek, langileek eta aparkalekuaren barnean edo haren sarreretan daudenek.
2. Aparkalekuaren enpresa titularra/emakidaduna/kudeatzailea (aurrerantzean, "Enpresa") izango da Arau hauek betetzen direla ziurtatzen duena, baita aparkalekuei eta ibilgailuen zirkulazioari buruz indarrean dagoen araudia ere, eta dagokion agintarien esku utziko du Arau horien edozein arau-hauste. Gainera, Arau hauek betetzen direla ziurtatzeko langileek emandako aginduak errespetatu eta bete beharko dituzte bezeroek.
3. Eskumena duten agintariak aparkalekuan sartu ahal izango dute, arrazoitutako arrazoiengatik, eta Enpresak hala eskatuz gero.

2. ARTIKULUA APARKALEKUAREN ERABILERA

1. Aparkalekuak izaera publikoa du.
2. Aparkalekuak errotaio-lekuak eta abonamendu-lekuak ditu, baita erabiltzeko lagatakoak ere, aparkalekuaren arabera.
3. Aparkalekuak iritsiera-ordenaren arabera esleituko zaizkie ibilgailuei, beharregatik edo zerbitzuaren ezaugarriengatik murrizketak ezar daitezkeen kasuetan izan ezik. Motozikletak eta bizikletak horientzat adierazitako tokietan soilik aparkatu ahal izango dira, eta ezarritako tarifa ordainduko dute.
4. Toki kopuru bat mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuentzat bideratuko da.
5. Aparkalekuaren barnean ez da onartzen:
 - a) Adierazitako altuera, pisua edo neurriak gainditzen dituzten ibilgailuak sartzea, edo beren neurriengatik aparkalekuaren ohiko funtzionamendua oztopatu dezaketenak. Inolaz ere ez da onartuko bi (2) tona baino gehiago pisatzen duten ibilgailuak aparkalekuan sartzea, xede horretarako gaitutako aparkalekua den kasuetan izan ezik.
 - b) Aparkalekuaren zerbitzuetatik kanpoko edozein pertsonaren sarrera.
 - c) Edozein animaliaren sarrera, segurtasun-baldintzetan lotutako maskotak izan ezik.
 - d) Erregaiak, elementu sukoiak edo arriskutsuak sartzea, ibilgailuetako deposituetako erregaia izan ezik.
 - e) Salmenta, permuta edo eskaintza ibiltaria.
 - f) Oinezkoak maldatik ibiltzea. Oinezkoek eskailerak, igogailuak edo haientzat egokitutako alboak erabili behar dituzte derrigorrez.
 - g) Sua piztea eta erretzea.
 - h) Bulegoetan edo instalazioetan sartzea beharrezko baimenik gabe.
 - i) Ibilgailu edota gidari arriskutsuak sartzea.
 - j) Instalazioen argazkiak/grabaketak egitea, aurrez behar den baimenik gabe.
 - k) Zerbitzu publikoak erabiltzea, aparkalekuko bezeroa izan gabe.
6. Eskuera gutxiko orduetan, segurtasunagatik, ibilgailuen eta oinezkoen sarbidea murriz liteke, ateak itxiz, baina bezeroek deitzeko eta haiei irekitzeko nahikoa sistema izango dituzte, eta bezeroen nahi dutenean atera ahal izango dute, indarrean den legediaren arabera.

3. ARTIKULUA SARERA, ZIRKULAZIOA ETA APARKATZEA

1. Aparkalekuan ibilgailuarekin sartu ahal izateko, makinak emandako ordutegi-txartela hartu beharko da. Bertan sartutako eguna eta ordua markatuko dira eta ibilgailua identifikatzeko balioko duen markatzailea/matrikula agertuko dira. Bezeroak egoera onean gorde beharko du, eta segurtasun-arrazoiengatik, beti gainean eraman beharko du. Txartela oker erabiltzen bada markatzailearekin/matrikularekin bat ez datorren ibilgailua ateratzeko aparkalekutik, iruzurrezko erabileratzat joko da. Telepeaje sistema bidezko sarrera Arau hauen 10. artikulua zehaztuko du.
2. Ordaindutako ibilgailuek 7. artikuluan xehatutako bitartekoak erabiliko dira.
3. Aparkalekuaren barnean eta sarreretan, bezeroak honako hauek errespetatu beharko ditu:
 - A) Zirkulazio-arauak eta aplika daitezkeen legeak edo arauak.
 - B) Trafiko-seinaleak.
 - C) Aparkalekuko langileen argibideak, edo kartel bidez emandakoak.
 - D) Arau hauek.
4. Ibilgailua aparkatuta dagoenean, gidariak motorra itzali eta eskuko balazta jarrita utzi beharko du. Ibilgailua giltzak itxiko du. Aparkalekuak ez du giltzak jasotzeko zerbitzurik.
5. Ez da onartzen ibilgailuak aurreraterik eta gehienezko abiadura 10 km/h da.

6. Ibilgailua matxuratuz gero, bezeroak aparkalekuko langilearen argibideei jarraitu beharko die.
7. Bezeroek aparkatzeko eta aparkalekutik ateratzeko beharrezko denborara mugatuko dute aparkalekuan igarotako denbora.
8. Ibilgailua kendu baino lehen ordaindu beharko du bezeroak egonaldiaren zenbatekoa indarrean diren tarifen arabera.
9. Txartela galduz gero, bezeroak ibilgailua atera ahal izateko, bezeroak bere burua identifikatu, autoaren gabea dela egiaztatu eta egondako denbora ordaindu beharko du.
10. Bezeroak egonaldiaren ordainagiria eskatu ahal izango du. Halaber, zerga-izaerako edozein eskubide gauzatu ahal izateko, fakturazio-betebeharrak arautzen diren Araudia onartzen den azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan zehaztutakoari jarraiki, faktura soildua eskatu ahal izango du.
11. Enpresak ibilgailuak kentzeko eskubidea du legez, ibilgailua abandonatuz gero, ibilgailuen aparkalekuko kontratua arautzen duen azaroaren 14ko 40/2002 Legeko 6. artikuluan xedatzen denari jarraiki.
12. Abonamendu-kontratua amaitu edo indarrean egoteari uzten dionean, ibilgailua kentzeko betebeharra du bezeroak. Ordaindutako iraupena/ordutegia baino denbora gehiago geratuz gero, bezeroak gehiegizko denbora horren zenbatekoa ordaindu beharko du indarrean diren errotazio-tarifen arabera.

4. ARTIKULUA TARIFAK

1. Sarreretan daude errotazio-erregimenean indarrean dauden tarifak.
2. Harpidedunen tarifak bezeroen eskura daude aparkalekuko bezeroen arretarako bulegoetan edo Enpresako Bezeroen Arretarako Zerbitzuaren bidez.
3. Segurtasun-arrazoiengatik, Enpresako langileek aparkalekuaren barnean dauden bezeroei esan ahal izango die aparkalekuko txartela edo harpidedunen/erabilera-emakidunaren txartela erakusteko.
4. Adierazitako toki bat baino gehiago hartzen duen ibilgailuak okupatu duen tokiaren arabera ordaindu beharko du.
5. Aparkalekuaren titularrak atxikitze-eskubidea gauzatu ahal izango du aparkalekuaren prezioa bermatzeko, ibilgailuen aparkalekuaren kontratua arautzen duen azaroaren 14ko 40/2002 Legeak dioenari jarraiki, baita indarrean den legeak ematen dio behartzeko bideak erabiltzea ere.

5. ARTIKULUA KALTEAK

1. Bezeroa izango da ibilgailuko osagarri ez-finko eta erauzgarriak kentzeko arduraduna, hala nola telefono mugikorrek eta gainerako ondasunak, eta Enpresak ez du kontzeptu horiei buruzko inolako erantzukizunik izango aparkalekuaren kontratua arautzen duen 2002ko azaroaren 14ko 40/2002 Legeko baldintzen arabera.
2. Bezeroak aparkalekuko langileei, berehala eta aparkalekutik irten baino lehen jakinarazi beharko die, aparkalekuan edo beste ibilgailu batzuetan eragindako kalteak. Era berean, aparkalekuaren barnean bere ibilgailuan izandako kalteen berri ere eman beharko du. Lapurreta eta espoliazio baten ondoriozko kalteen kasuan, dagokion salaketa bideratu beharko da eskumena duten Segurtasun-indarren aurrean.
3. Enpresak suteen eta erantzukizun zibileko aseguruak ditu bai aparkalekurako baita bere barneko ibilgailuetarako ere, indarrean den legearen arabera ondoriozta daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko.

6. ARTIKULUA ERREKLAMAZIOAK

1. Erreklamazio-liburu eta -orriak ditugu bezeroen eskura aparkalekuko bulegoan. Halakorik ez balego, bezeroak Enpresari eskatu beharko dizkio erreklamazio-orriak, horretarako gaitu diren bideak erabiliz.

7. ARTIKULUA ABONAMENDU-ERREGIMENEN BEZEROEN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

1. Abonamendu-erregimeneko bezeroek esleitu zaizkien lekuak erabiliko dituzte, Enpresaren arrazoi funtzional eta operatiboengatik.
2. Abonamenduak eskubidea ematen du abonamenduaren inskribatze-erregistroan agertzen den ibilgailuak soilik erabiltzeko aparkalekua, ez beste batek
3. Enpresari jakinarazi beharko zaio datu pertsonaletan izandako edozein aldaketa.
4. Derrigorrez erabili beharko da abonamenduari lotutako kodetutako txartela edo OBE aparkalekuan sartzeko edo handik irteteko. Txartelaren jaulkipena edo ordezkatzeta, galdu, hondatu edo abarreatatik, Enpresak uneoro jaulkitzeagatik finkatutako kostuak ordaindu beharko dira. OBE bidezko loturak ez du kosturik.
5. Aparkalekua hitzartutako ordutegitik kanpo erabiliz gero, gehiegizko denbora indarrean den tarifaren araberrako prezioan ordaindu beharko da errotazio-erregimenean eta orduka ordainduz.
6. Harpidedunak txartela galtzen badu, Enpresari jakinarazi beharko dio.
7. Ordaindutako kuoten ordainketa Enpresak adierazi moduan egingo da.
8. Abonamenduaren ebazpena idatzi egin beharko da abian den hilaren 25. eguna baino lehen gehienez.
9. Ez bada betetzen, Enpresak abonamendua ebazteko eskubidea izango du bezeroak idatziz jakinarazi baino lehen. Era berean, Enpresak bere betebeharrak beteko ez balitu, bezeroak abonamendu-kontratua ebatzi ahal izango idatzi jakinarazi ostean.

10. Harpidedunaren eta Enpresaren arteko harremana uneoro indarrean dauden Harpidedun-erregimenaren arauei jarraiki zuzenduko da.

8. ARTIKULUA ERABILERA-ESKUBIDEAREN LAGAPENEO BEZEROEN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

1. Erabilera-eskubidearen erregimeneko bezeroek bakoitzaren kontratuetan hitzartutako leku finkoa okupatuko dute.
2. Erabilera-eskubidearen lagapenak eskubidea ematen die titularrei inskribatze-erregistroan agertzen den ibilgailuak soilik erabiltzeko aparkalekua, ez beste batek
3. Derrigorrez erabili beharko da erabilera-lagapenari lotutako kodetutako txartela edo OBE aparkalekuan sartzeko edo handik irteteko. Txartelaren jaulkipena edo ordezkatzeta, galdu, hondatu edo abarreatatik, Enpresak uneoro jaulkitzeagatik finkatutako kostuak ordaindu beharko dira. OBE bidezko loturak ez du kosturik.
4. Aparkalekua erabiltzeko ordutegia mugatua da.
5. Erabilera-eskubidearen emakidunak txartela galtzen badu, Enpresari jakinarazi beharko dio.
6. Gastu komunak ordaintzeko dagozkion kuotak ordaindu beharko dituzte.

9. ARTIKULUA DATUEN BABESERAKO LEGE ORGANIKOA. Datu pertsonalen babeserako 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenari jarraiki, aparkaleku-zerbitzua emateko bildutako datu pertsonalak, bideo-zaintzaren edo ibilgailuak matrikulak hartzeko sistemaren bidez jasotako irudiak eta harpidedunak emandako datuak barne, Enpresaren jabetzeko fitxategi batean gehituko dira, aparkaleku-zerbitzua ematea kudeatzeko xedez, eta datu horien bezero-titularrek datuak atzitzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta horien aurka egiteko eskubidea gauzatu ahal izango dute idatzi bat bidalita Saba Aparcamientos S.A. Avda Parc Logistic 22-26, 08040 Bartzelona helbidea (erreferentzia gisa, Ref. datos personales ezarrita).

10. ARTIKULUA TELEPEAJE BIDEZ SARTZEA ETA ORDAINZEA APARKALEKUA

1. "Via T" telepeaje-sistema instalatuta eta seinaleztatuta duten aparkalekuetan, bezeroak gailu horren bidez sartu eta ordaindu ahal izango dute. Aparkalekuaren sarreran eta irteeran instalatuta badago sistema, Via T eskainitako zerbitzuetan ere erabil daiteke (adib. harpidedunek) inolako kostu osagarririk gabe.
2. Xede horretarako, bezeroak OBE ongi instalatuta izango beharko du ibilgailuan aparkalekuan sartzeko edota ordaintzeko unean. Sarreran, kontrol-sistemak "Via T" ezagutuko du eta sarrerako barrera irekiko du, bezeroak tiketa sartu beharrik gabe edo sarrerako postean harpidedun-txartela sartu beharrik gabe. Irteeran, kontrol-sistemak egonaldia baloratu edo bezeroa identifikatuko du, ibilgailuari irteten utziz.
3. "Via T" telepeaje-sistemaren bidez ordainduko da egonaldia. Denbora partzialeko abonamendu-erregimeneko bezeroei gehiegizko denbora Via T bidez fakturatuko zaie.
4. Badira Via T bidezko egonaldietarako produktu esklusiboak.

11. ARTIKULUA ARAUAK ALDATZEA

Aparkalekuak hobeto funtzionatzeko egoki irizten dionean alda ditzake Arau hauek Enpresak, baina behar bezala argitaratu beharko ditu bezeroek horien berri izan dezaten.